

Mugazainen Bidexka

Distantzia 8 km	Desnibela 550 m	Iraupena 3h15	Tipologia Itzulia	Zedarriak GRT seinaleak (gorria eta zuria) 1. zatian, PR (horia) gaineratekoan
---------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	---

Urruñatik (A63 autobideko 2. jalgibidea), hiri inguruko biribilgunean, zuzen segitu Behobiako norabidean (D810). Urruñako auzo honetan zarelarik, Irungo nazioarteko zubia baino doi bat lehenago, Biriatuko norabidea segitu ezkerrean, eta gauza bera egin hurrengo biribilgunean. Herriaren beheko aldean, eskuinera joan, ibilbidearen abiapuntua 5 km-tara dela seinalatzeko duen errepidean. Bidasoaren bazterretik ibili zenbait auzo zeharkatuz. Ihiztokian (2,5 km), "Lizarlango bideak" oihan-errepidearen segida hartzen du parean, 1,5 km-tan mundrunatua; oraino 400 m-tan segitu bide ibilgarrian, eskuinaldera doan bihurgunean aparkaleku bat aurkitu arte.

GPS datuak: **UTM : 602934 - 4796293 Lat/Long : 43.31239/-1.73066**

Ibilaldi hau ez da oso luzea, baina halere kirol motakoa da, mugako lehen tontor-lerrotik iragaten baita, askotan patar zutenetik, behiala gaueko lanari erne zeuden mugazainen bide beretik. Malda zutei ohituak bagara, orduan itzulia Pirinioetako lehen lur muinoetarako goraldi zoragarria bilakatzen da.



1. ZATIA > Aparkalekutik Lizarlan ibarrera

UTM: 602934 - 4796293
Bidearen bihurgunetik (80 m), ezkerrean den bide harritsu bat igotzen hasi, erreka bat baino gorago ("GT2 lotura" bide seinalea). 200 m gorago, T itxurako bidegurutzean (gogoan hartzekoa itzultzeko), eskuineko bidea segitu. Lehen oihan batetik iragaten da, eta oihanbide zabal batera jaisten da, zuzen segitu behar duzuna. Lizarlan etaldearen heinean, zuzen segitu jaisten den bidexka belartsuan. Oihanetik, bidexka Lizarlan errekararen ohera iristen da behegora, eta eskuineko hegitik jaisten segitzen du.

2. ZATIA > Lizarlan ibarretik 5. mugarrira

UTM: 602850 - 4795464
Ezker, zubixka batek (13 m) erreka zeharkatzeko bidea ematen dizu. Beste hegian, GRT2 bidean den eskuinaldeko atexka bati kasurik ez egin (aurriak), parean den horiz seinalatutako bidexkan egoteko. Zut igotzen da ezkerrean eta kasko borobildu oihantsuan sartzen, non atseden hartuko duzun gogotik haritz eder batzuen itzalpean. Bidasoa ibarrerako ikuspegiaren ondotik, bidexkak desnibel arrokatsu bat iragaten du (275 m inguru) eta bere igoaldi zorrotza segitzen du. 3 zk. mugariaren ondotik ibiliz, azkenean, malda eztitzen da; zure parean, Azkoeko mendixka



INTERESGUNEAK

❖ Mugarriak (2,85 km)

Frantzia eta Espainia arteko behin betiko muga onetsi zuten Napoleon III.aren garaian (Frantsesen enperadorea) eta Isabelle II.aren garaian (Espainiako erregina), Baionako hiru itunen bidez (1852, 1862 eta 1866). Mendian, lerro hori gauzatzen dute mugarri edo gurutze batzuek, Atlantikotik Mediterraneoraino 602 badirela.

UTM: 603515 - 4794906

❖ Arroka magmatikoak (3,1 km)

Azkoeko gailurrean arroka oso gogorreko azala agertzen da. Granitoa da hori, batzuetan kuartzoko lerro-itxurako zainez hornitua. Arroka magmatikoa, duela 300 milioi urte baino gehiago sortua, eta Pirinioetako mendi katearen oinarria osatzen duena, Cauterets edo Néouvielle mendiguneetan ere aurkitzen dugu.

UTM: 603754 - 4794961

❖ Muki-belar eta eguzki-ihintza (4,7 km)

Etengabeko ur turruta, goroldio pixka bat, horiek dira intsektujale izateagatik bereziak diren bi landaren bizitzeko baldintza ezin hobek: muki-belarra eta eguzki-ihintza. Haien behar energetikoak asetzeko, hosto itsasgarriak dituzte eta horrela dituzte intsektu ausartegiak harrapatzen.

UTM: 604620 - 4795783

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Biriatu, ur gunea eta komunak herrian (pilota plaza)
UTM: 601900 - 4798601

zeharkatzen duen bide belartsua segitu (375 m). Beste aldera jaitsi lepo baterantz.

3. ZATIA > 5 mugarritik Ihilepora

UTM: 603970 - 4794986

5 zk. mugarriak seinalatzeko duen lepoan (360 m), eskuineko bide zabalarri kasurik ez egin, parean den mugako bidexka zuta segitzeko, zuhaitzen bazterretik igotzen dena. Patar-raren tontorrean (6 zk. mugarria), Larrunerako eta Iban-telirako ikuspegi ederra aurkitzen dugu. Azal arrokatsuen eskuinetik pasatzen da bidexka, arrokan zizelkatua, eta berriz tontor-lerroaren ezkerretik, lepo belartsu batera heltzeko (465 m). Lehen elorri zuritik, tontor-lerroa utzi ezkerrean joanez, bidexka berri baten abiapuntua topatzeko. Luzaz isurialde mazelan iraganen da, Ihilepora iritsi arte.

4. ZATIA > Ihilepotik Lantzetaerrekako bidegurutzera

UTM: 604446 - 4796115

Ihilepoan (421 m), bestaldeko isurialdera joan eta gorriz eta zuriz (GR10) seinalatutako bidexka segitu (doi bat ezker). Xoldoko gainako aintziraren gainetik erregulartasunean jaisten da eta Pitare lepora heltzen da (316 m). GR seinaleari kasurik ez egin eta arrunt ezkerrean joan, oihaneko zokoan, segidan bi adarretan bereizten den bidean: ezkerrean, oihanean sartzen dena hautatu. Bidea oihan barnean jaisten da bi bihurgune handitan, eta erreka baten bazterretik doa. Lurrezko bidera iritsi eta (221 m), erreka zeharkatu eta eskuineko bidea segitu.

5. ZATIA > Lizarlan bidera itzultzea

UTM: 603238 - 4796470

Lantzetaerrekako gurutze itxurako bidegurutzean (200 m), bi bide eskuinean utzi, eta ezkerrean jaisten den bidea hautatu. 200 m behegora, ezkerrean itzuli haritz ohargarri baten azpian eta Lantzetaerrekaren ohera heldu. Ondotik, bideak ezkerreko hegia segitzen du eta etortzerakoan topatutako lehen bidegurutzera heltzen da: eskuineko bidea jaitsi aparkalekura itzultzeko.

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltariarentzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolariarentzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzaren duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereizi itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┐	└┐	└┐	◀
Itzul eskuin	┐└	┐└	┐└	▶
Norabide okerra	✕	✕	✕	✕

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKHEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gov.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAINA, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.